

## Irudiak

**C**arlos Palomino hil zutenean, Madril isilik geratu zen. Inork ez zekien norantz begiratu. Garai hartan PP bere manikanpainetan ari zen, nahiko ezkutuaz zebiltzan talde ultraeskuindarrak xaxatuaz. Giroa iluna zen. Eta gorpua azaldu zen. Irudiak, baina, orain plazaratu dira. Egokia da irudiok jartzea? Zer pentsa dezake bere amak? Amak dio inork egin ez balu epaiketa ondoren irudiak berak zabaltzeko asmoa zuela, banda arteko liskarra izan zela gezurtzeko. Berari, beraz, iruditzen zaio irudiak baduela garrantzi informatiobiko nahikoa publikatua



**Jira**  
Uxue Apaolaza

izan dadin. Begiratzen duenak, baina, zentzu horretan egingo du?

Gisele Freund argazkilaria dio, *El mundo y mi cámara* liburuan, nola ohartu zen bere argazkiak manipulatua izan zitezen keela oin oharraren bidez edo inguratzen zuten letren bidez. «Argazkia arazo etiko bihurtu zen berari az gertaerak itxuraldatzeko erabil daitekeen neurrian». Ez hori bakarrik, drama ikuskizun bilaka dezakete, batez ere bideoek. *20 minutos*-en «ikusirudiak gure webgunean» gonbidatzen gintuzten, ikusi hori tipografikoki azpimarraturik Arsenio Escobarri (zuzendaria) irakurritzen ari naizenez irakurle baten kexari erantzunez. Barkamena eskatu du, ez irudiengatik, beraiek emandako zentzuagatik baino. Irudia gutxitan da ezeren erudun.

## ‘Phedre’

**H**eletako Itsasoa kafe-antzekiak eta naturalaz bestelako ausa-lekurik ez dudala erranen duzue, arrazoiekin. Euskal Kultura Erakundeak urteko euskarazko diktaketa antolatzen duen egun honetan —ortografiaren jaingo bekaitzen begietan bekatu hutsean erraz aurkituko gaituzte gure hizkuntzan berean— arratsaldeko seiak aldera Corinne Lallemand adiskideak Yannis Ritsosen *Phedre* olerki luze birribilketaria irakurriko du Otsozelaiko lunpean. Greziar antzerki gintza-konponaia distiratsuenetarik bat da Phedra,

hain gogoko ditudan Elektra, Medea eta Antigonarekin batera. Amodioa, gorrotoa, gezurra, manipulazioa, heriotza haragitzen dituen figura femeninoak erraiak inarrotzen dizkigu, dudak hantzen, borondate arrazional eta moralaz haratago, abjekzio guhauren barne-mamu aitogabeen onarpenera bultzatzen gaituela hitzetik hiltzera. Delphe inguratzen duten mendien izena da

Phedra, argitsuak alegia, goizetan ekia jazaritzen denean gailur minalak urrez apaintzen direlako.

Ederra da Phedra edozein mintzairatan, moldeetan, Euripide edo Racinen luma-pean, bereziki adibidez, Dominique Blanc-en trakako izar umilak gorputza eskaintzen dionean.



**Bira**  
Itxaro Borda

**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi  
**Zuzendariordea:** Xabier Makazaga  
**Edizio arduraduna:** Edizio arduraduna:  
Lurdes Hulzi  
**Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM  
**Publizitatea:** Irigarri SM  
**Lege gordailua:** SS-0662/03  
**Batzorde parekidea:** 0712184059  
**Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudariaren Etorbidea, z/g. 20140 Andoain.  
**Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30  
**Faxa:** (0034) 943-30 09 43  
**Webgunea:** www.berria.info  
**Posta elektronikoa:** berria@berria.info  
**Publizitatea:** publi@iragarri.net  
**Harpidetza saila:** (0034) 943-30 43 45  
**Date:** 16/05/2009  
**Exemplaire:** 1.834  
**Editeur:** Euskal Editorea s.l.  
**Directeur de publication:** Martxelo Otamendi  
**Comision paritaire:** 0712184059  
**Delegation Labour:** Lisses 3, 64100-Balona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdil@berria.info

**ORDEZKARITZAK**  
**Araba:** Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008  
Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Erredakzioko faxa: 945-14 83 07. Posta elektronikoa: araba@berria.info.  
**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Erredakzioko faxa: 94-423 49 75. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.info.  
**Lapurdia:** Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Balona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdil@berria.info.  
**Nafarroa:** Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Publizitatea: 948-36 66 23. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.info.

# Homofobiaz

## Jesus Estonba Olasagasti

Gehitu taldeko Informazio eta Laguntza Zerbitzuko koordinatzailea

**D**uela urte asko gertatu zen, eta orduraz geroritik, nahikoa denbora igaro da atzera begiratu eta bertigo moduko bat sentitzeko. Formatu txikiko liburua zen, azaleko kolorea galdua zuen jada, eta egunkariaren eta forma eta kolore guztietako gozokiaren artean zegoen, auzoko kiosko bateko apaletan bazterrean utzia. *Homosexualidad: el asunto está caliente*, horixe jartzen zuen azalean, ez bairik gabe, titulu iradokitzalea bere homosexualitate ulertu edo, hobeto esanda, harekin batera bizitzen ikasi nahi zuen gazte nerabe batentzat. Liburu haren irakurketa izan zen homosexualitatearen errealitate zabal eta generikoarekin izan nuen lehen kontakutua, nire bizipen pertsonala baino harantzago zihoana. Baina, horrez gain, liburuari esker beste errealitate horren azpiko mekanismo ezkutatuak sumatu nituen, nabarmenak batzuetan, eta oharkabeen pasatzen direnak beste askotan, hau da, gaur egun, *homofobia* deitzen duguna.

Ez, ez da nostalgia, eta ezta zorakeria hutsa ere. Asoziazio libre bat da, oroitzapen simple bat, nagiak kendu eta gaur bere lozorrotik atera dena. Eta, segur aski, ez kasualitate hutsagatik... Izan ere, orain dela 19 urte, 1990eko maiatzaren 17an hain zuzen ere, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) buruko gaixotasunen zerrendatik ezabatu zuen homosexualitatea. Erabaki hark balio gabe utzi zuen horrenbeste homofobia-adierazpenek gozatu zuten babes zientifikoa (pseudozientifikoa). Ordudanik, maiatzaren 17a balio

handiko eguna da pertsona homosexualentzat. Egun garrantzitsua da termino oso zehaztugabe eta, segur asko, ez oso egoki hori berriz hartzeko, *homofobia*. Gizon edo emakume homosexualen aurkako nazka, gorrotoa, beldurra, aurreiritzia edo diskriminazioa adierazteko erabiltzen da termino hori baina, askotan, sexu-aniztasunari dagokionez ere erabiltzen da, orokorrean.

Terminoaren bigarren osagaiak, *fobia*-k, psikologiaren alorrera eramaten gaitu, gatazka indibidualak sortutako beldur irrazionalen mundura, baina esan behar da osagai hori gehienetan ez dela adiera horrekin erabiltzen. Daniel Borrillo autoreak *Homofobia* liburuan ondo dioen bezala, «... *Otras manifestaciones menos groseras, pero no menos insidiosas, ejercen su violencia cotidianamente*...». Autoreak homofobia kognitibo eta sozializatzen dituen manifestazio horiek logika bera du sexismoaren edo xenofobiaren gisako kontzeptuetan ere: diskriminazioa, oposizio-dialektika eta bereizketa, ordena zehatzaren eta kohesio sozialaren alde.

Hain zuzen ere, azken hori da, homofobia kognitiboa, edo soziala, artikulu honen benetako ardatza. Eta ez haren alderdi teorikoa, errealitateaz baizik. Ez haren erroak ulertzeak, adierazpen batzuk ezagutzera emateko baizik.

Argi dago diskurtso homofoboa, nabarmena eta mingarria, presente dagoela gizarte-eremuetan eta botere-zirkuluetan. Proiektio mediatico handiko pertsonaien ahotik entzun daitezke horrelakoak; izan ere, beren arlotik (politikaren, erlijioaren, ikaskuntzaren... arlotik) gogor erasotzen diote kohesio kulturalarentzat eta gizarte-moralarentzat atentatu dela pentsatzen duten, edo pentsarazi nahi dituzten kontzeptu horren aurka. Gehienetan, adierazpen zakarrak, irudikapen histrikoak

eta gauza zentzugabeak izaten dira. Oro har, adierazpenen karikatuta bihurtzen dira, eta amore ematen dute sen onaren beraren aurrean.

Baina ez dugu ahaztu behar, gaur egun, homofobiak aurpegi berriak dituela, latzak eta, batzuetan, onartezinak. Ez dugu ahaztu behar gorrotoa adierazteko modu hedatuenetarikoa bat dela eta, gainera, bere tokia betetzen duela munduko herrialde askotako araudi diskriminazional eta zapaltzaileetan. Gaur egun, 80 herrialde inguruk krimenizatzen dute homosexualitatea eta zigortu egiten dituzte sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak. Adibide bat jartzearen: joan den martxoan, Marokoko Barne Ministerioak homosexualitateari buruzko komunikatu bat argitaratu zuen eta, bertan, honako hau adierazi zuen: «... komunikabideen bitartez hainbat ahots zabaltzen ari dira portaera doiloren apologia egiteko, nazioaren irizitza publikorako probokazio hutsa direnak...». Jarraian, honako hau zioen: «Indarren audien arauak kontuan hartu eta aurre egingo diegu gure balioen aurka doazen jarduerak guztiei [...]». Horixe, bada... 2009ko martxoan... Horrez gain, ez dugu ahaztu behar oraindik ere zortzi herrialdetan (Afganistan, Iran, Mauritania, Nigeria, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak eta Yemen) aplikatzen dela heriotza-zigorra kasu horietan.

Baina homofobiak badu, hala ere, aurpegi arrisksutsuago bat. Homofobia oharkabeen pasa daiteke eta horregatik da arrisksutsua, denbora luze iraun dezakeelako. Homofobia ohiko jarrera eta oharkabeko bidelagun bilaka daiteke, eta oso gutxi dute hari moztorra kentzeko adorea. Orain dela gutxi (2007-2008 ikasturtean), ikerketa bat egin zen Donostiako hainbat ikastetxetan gure gazteek homosexualitateari (dibersitate afektibo-sexualari, oro har) dagokionez zer esperientzia duten

jakiteko. Jarraian azaltzen diren datuok, esate baterako, ikerketa horren bitartez lortu ziren: gure kultur handi batek argi eta garbi adierazi du ikastetxeen homofobia-jarrerak ikusi dituela (gazteen % 52-74k, jarrera horren ezaugarrien arabera); galdetutako gazteen % 4k ikaskideren bat jipoitu dutela aitortu dute ikaskidearen orientazio sexuala dela eta, %13k ikaskidea alde batera utzi dituela adierazi dute, eta %11k objektuak bat bota dituela; beren orientazio sexuala aitortu duten gazteen % 11k eraso fisikoren bat jasotzen adierazi dute, eta % 35ek metatxela edo antzekoak jasotzen dituztela.

Datu batzuk besterik ez dira horiekin, datu beldurgarriak, sumindur egin behariko gintuzketenak. Arazoa da datu horiek gutxi batzuk bakarrik oinarritzen dituztela... Eta hori bai, hori larria da, eta hausnarketa sakona eskatzen du. Gure gazteak eredu arkaikoak errepikatzen ari dira —gehienbat mutilak, esan beharra dago— eta ezer gertatuko ez balitz bezala dihardugu. Segur aski ez da oharpen-arazoa izango, lautik hiruk ikusi baitute mota horretako jarreraren bat ikastetxeen. Beharbada, arazoa beste maila batean egoingo da: horiekin emandako garrantzian, alegia. Badirudi adierazpen homofobo batzuk mimetismo handia lortu dutela ingurunean eta, beraz, beren botere suntsitzailea itxura normaleko estaldura baten azpian kamuflatu dituela. Eta hori arrisksutsua da, oso arrisksutsua; izan ere, horri giza indibidualismoa eta egozentrismoa batzen badizkio, gure erreakzionatzeko ahalmen guztia geldiaraz dezake. Estrategia makiavelikoa, izaki anestesiatuak, ezer esaten ez duten lekukoak...

Homofobia arazo bat da oraindik, ez gaitzen engaina, baina beharbada, ez nahikoa. Egia esan, arazo bat ez da arazo bilakatzen hura sostengatuko duen jarrerarik —zurea, nire, gurea— ez badago. Nahiago nuke beti egongo balitz hori gogoratu araziko ligukeen zer bait, azaleko kolorea kendua duen liburuaren bat beharbada, auzoko kiosko zaharren batean galduta.